



Aniztasuna jarduera ezberdinen bitartez landuko dute Urnietan

Azaroaren 10ean hasi eta abenduaren 11 bitarte kultura, generoa eta hizkuntza ardatz dituen egitaraua iragarri dute.

“Urnietan herri anitza da”, adierazi zuen Mikel Pagola alkatea. Eta halaxe da, jatorriz ia hirurehun herrikide kanpoan jaiotakoak direlako. Haietako batzuk, Portugal aldeko komunitatea esaterako, duela hamarkada batzuk hona iritsi eta bertan errotu zen. Geroztik, Urnietara –eta Euskadira, oro har– bertaratutakoen jatorria erabat dibertsifikatu da. Dagoeneko Urnietan amerikar, afrikar, asiarrak edota ozeaniar jatorriko herrikideak bizi dira.

Errealitate horretatik abiatuta, Urnietako Udalak datorren urterako “Harrera Plana” deritzona martxan jarriko duela iragarri du. 2017an zehar egoeraren diagnostikoa egin nahi-



Eli de Arriba Berdintasun teknikaria, Mikel Pagola alkatea, David Rosco zinegotzia eta Josune Mayor teknikaria aniztasunari buruzko egitarauaren aurkezpen ekitaldian.

ko lukete, eta baita harrera planaren diseinua ere. Besteak beste, Urnietara etortzen diren pertsonen herriaren integratzeko bidea zehaztu nahi zaie. Hala nola, Udal zerbitzuen berri emanez edota hezkuntza eta

osun alorreko eskaintzari buruzko informazioa emanez.

Aniztasun horretan, Udalak kulturari, hizkuntzari eta generoari garrantzia berezia eman nahi dio. Eta horretarako, azaroaren 10ean hasi eta abendua-

ren 11 bitarte, hitzordu ugari antolatuko dituzte. Besteak beste, ipuin kontakizunak, antzerkia eta solasaldiak. Hitzordu guztiak Saroben, Lekaion eta Ludotekan egingo dituzte. [URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Gorbeia irteera, bertan behera



Eguraldiaren aurreikuspenak ez dira onak eta mendi irteera datorren urteko udaberria atzeratu dute.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Motor festa Erratzu poligonoan



Aterkia eskuan, dozenaka izan ziren aurreko igandean Erratzura gerturatu ziren motorzaleak.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Oroimenaren eguneko ekitaldiak



“Askatasunari” eskultura ondoan hitzordua jarri du Elkarbizi taldeak Andoainen.

Ostegun honetan, azaroak 10, ekitaldiak Andoainen eta Urnietan.

Elkarbizi taldeak, azken urteetan egin bezala, bilkura deitu du Oroimenaren egunean. Indarkeriaren biktimak guztiak gogoratzeko ekitaldia iluntzeko 19:30ean hasiko da Lopez de la Calle parkean.

ADIERAZPEN BATERATUA

Lehenago, eguerdiko 12:00tan hasita, alderdi politikoek adierazpen bateratuaren berri emango dute Udaletxean.

URNIETAN SAN JUAN PLAZAN

Urnietan arratsaldeko 19:00etan hasiko da bilkura, San Juan plazan. Bost minutuko elkarretaratzea egingo dutela iragarri dute.

“Lu eta Le” antzezlan Saroben

Lurdes Iriondo eta Xabier Lete ardatz duen obra idatzi du Bernardo Atxagak, eta Txalok antzerkera egokitu.

Bi kultur gile ezagunen bizitokitik ehun metro eskasera dagoen Sarobe antzokian “Lu eta Le” antzezlanaren aurre estreinaldia egingo dute datorren azaroaren 16an, asteazkenare-

kin, iluntzeko 19:30ean hasita. Sarrerak dagoeneko salgai daude leihatilan. Azken sarrerak emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago jarriko dituzte salgai. [URNIETA, 3. ORRIALDEA]



Euskal dantzak Urnietan



Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen eskutik, dantzazaleen topaketa.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Aniztasuna ardatz duen egitarau zabala



Azaroaren 25ean elkarretaratzea deitu dute plazan, 18:30ean hasita.

Egitarau zabala egokitu dute, honakoa:

AZAROAK 10, OSTEGUNA Ipuin kontaketa 17:30. Ludoteka.

Maite Franko ipuin kontalariak kultur-artekotasunari buruzko ipuinak eskainiko ditu.

AZAROAK 20, IGANDEA Antzerkia 19:30. Sarobe.

Arizona antzezlan, genero indarkeria eta homofobia hizpide dituen antzezlan. Estatu mailako Max sari go-renak jaso ditu.

AZAROAK 23, ASTEAZKENA Diaporama 19:00. Lekaio.

Lesbos-Atenas aldean ibilitako bi bolondresen esperientzia azalduko da.

AZAROAK 24, OSTEGUNA Ipuin kontaketa 17:30. Ludoteka.

Ixabel Agirresarobek mundu zabaleko ipuinen berri emango du Afrikako, Ipar Poloko, Japoniako edota Armeniako istorioen bitartez.

AZAROAK 25, OSTIRALA Elkarretaratzea 18:30. San Juan plaza.

Genero indarkeriaren aurka egunean elkarretaratzea deitu dute.

AZAROAK 25, OSTIRALA Zinema 19:00. Sarobe.

"La Patota" Argentinako filma gizarte jardueretara begira lanean dabilen abokatu baten istorioa da.

Abendura bitarte solasaldi eta kultur jarduera gehiago.

Tasak eta zergak, aldaketa nabarmenenak

Aurreko astean ez ohiko batzarraldian 2017ari dagozkion ordenantza fiskal berriak onartu zituzten Urnietan. Aldaketa nabarmenenak honakoak dira:

- **Etxeko ura:** Ordainketaren kuota finkoa 9,78 eurotatik

9 eurotara jaitsiko dute. Zehazki, jaitsiera %5,18-ekoa da, 0-30 metro kubi-ko bitarteko ur kontsumoa dutenei.

- **Sarobe:** Helduen ikuskizunen prezioa 4 eurotik 5 eurora igoko da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

AURRERA GURE AMETSA DANTZA TALDEA

Dantzazaleen topaketa



Dantzari eta dantzazaleen topaketa egin zuten igande goizean, Aurrera Gure Ametsa Dantza Elkarreak antolatuta. Negu giroko eguraldia eginagatik, dantzarako umorerik ez

zen falta izan eta trikitilari, txaranga eta txistularien laguntzarekin dantza eta dantza aritu ziren. Hango eta hementiko dantza taldeak batzeko aitzakia ederra izan zen.



UDAL ADIERAZPENA

Memoriaren eguna

Udalaren adierazpena egun horretarako hiru alderdien babesarekin:

"Memoriaren Eguna" ospatzen dugu gaur. Hori dela eta, Urnietako Udalak gonbita egiten die herritarrei iragana ez ahazteko, ezta gure gizarteak jasan dituen ondorio lazgarriak ere, bereziki ez ahazteko biktima guztiak, beren min eta nahigabearen injustizia aitortu behar dizkieguna. Elkartasuna, hurbiltasuna, egia, aitortza eta erreparazioa zor diegun biktimak, hain zuzen ere.

Aldi berean, Memoriarekiko hitzordu horrekin askotarikoaren arteko elkarrikeria sustatu nahi da, inoiz ez, sekula gehiago berriro ere gertatu behar ez den iraganaren gaineko hausnarketa kritikoa sustatu nahi da; eta horretarako, Euskadiren gaurko

egunerako eta etorkizunerako elkarbizitza ezartzeko borondate eraikitzailea partekatu, beti ere ideien aniztasun, printzipio demokratiko eta giza eskubideen defentsarekiko errespetuan oinarrituta.

Horregatik guztiagatik adierazi nahi dugu:

- Etorkizuneko bake eta bizikidetzak eskatzen dute indarkeriaren bidegabekeria aitortzea, egindako mina eta biktimen duintasuna onartzea, biktima guztiek merezi baitute egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea.
- "Sekula gehiago" ez dugula egin-go, ezta justifikatu ere, gure arteko indarkeria eta terrorismo adierazpenik.
- Giza eskubideak urratzeko meha-

txu orok izango duela gure aurrez aurre aurkakotasuna, eta Euskadiraiko gaur eta etorkizunerako gure borondatearen oinarrian dagoela bide baketsu eta demokratikoetan sakontzea, elkarbizitza libre eta bakezkoa lortzeko formula eraikitzaile bakarra izanik.

AKORDIO PROPOSAMENA

- 1 Memoriaren Eguna ospatu, 2016ko azaroaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan San Juan plazan 5 minutu elkarretaratzea deituz eta udal ordezkariak bertan izango direlarik.
- 2 Aurrez eta behar bezala zabaldu elkarretaratze horren iragarpena eta herriko gizarte eragileetako ordezkari eta herritarrak parte hartzera gonbidatu.

Bernardo Atxagak idatzi du, Donostia 2016ko ekimenen baitan

“LU eta LE”, Iriondo eta Lete ardatz dituen antzezlan



Lourdes Iriondo eta Xabier Lete.

Datorren asteazkenean, azaroak 16, herriko bi kultur gile ardatz dituen antzezlanaren aurre estreinaldia egingo dute.

'LU eta LE' Bernardo Atxagak Donostia 2016 "Bakearen Itsasargia" programaren barruan enkarguz idatzirik antzezlan da, zeinean idazleak Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren mundu-ikuspegi pertsonala planteatzen duen. Ados Teatro konpainiak asteotan lana taulaganera egokitu du eta aurre estreinaldia bi musikariren herrian bertan egingo dute. Saroben, euren bizitokitik oso gertu gainera.

GAIXOTASUNA

Euskal kantagintza berriaren erreferentzia nagusietakoak izan ziren Lurdes Iriondo eta Xabier Lete. Lurdes Iriondo "Euskal Herriaren nobia" izendatu zuen Gabriel Arestik. Xabier Lete musikagile eta poeta aparta izatera iritsi zen. Baina, aldi berean, biek ere heriotzare-

Bernardo Atxagaren antzezlanak Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren mundu-ikuspegi pertsonala planteatzen du

kin lotura handia izan zuten bizitza osoan zehar: 1985. urtean Leteri tratamendu eta sendabiderik ez zuen digestio aparatuari eragiten zion sindrome genetikoko bat aurkitu zioten. Lurdesek ere hemezortzi urtetatik, balbula aldatzeko hainbat operazio izatera behartu zuen bihotzeko gaitza zuen, estenosi mitrala deritzona.

HERIOAREKIKO HARREMANA

Konpainiaren sinopsiaren arabera, "umore kutsu sotilaz, bi protagonistak seduzitu nahian baina eurak gogor eutsiko dioten herioarekiko harremanaz mintzo dira. Baina egun batean herioak halabeharrez jaso egingo ditu".

ANTZERKIA SAROBEN



AZAROAK 16, ASTEAZKENA 19:30. Sarobe. 4 euro.

Egilea: Bernardo Atxaga.

Zuzendaritza: Garbi Losada.

Musika: Juan Carlos Perez.

Aktoreak: Ramon Agirre, Joseba Apaolaza.

Sarrerak salgai leihatilan eta emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago.

Emanaldi borobila, Ereñotzukoa



Aurreko larunbatean Ereñotzuko pilotalekuan antzeztu zuten.

Urnietako herritarrek osatutako antzezle talde zabalak, pasa zen larunbatean taularatu zuen "Gabon Txirrita" antzezlan. Larunbateko emanaldia Hernaniko Ereñotzu auzoan izan zen. Txirrita bertsolaria mundura sortu zen auzo berean, hain zuzen ere.

PILOTALEKUA JENDEZ GAINEZKA

Arratsalde hotz eta euritsuak etxe barrurako hobea zirudien frontoi ireki batean antzezlan bat ikusteko baino. Hala ere, 19:30etan emanaldia hasi zenerako jendez gainezka ageri zen pilotalekua; 300 pertsona bertaratu ziren auzokide izandakoaren bizitzari errebasoa ematen dion obrarekin. Eta gozatu ederra hartu zuten! Bikain joan zen emanaldia eta ikuskitu ederra eskaini zuten aktore, musikari eta dantzari urnietarrek.

Donostiako eta Urnietako emanaldiaren ondoren, hirugarrena izan zen Ereñotzuko, eta taldeari nabaritzen zaio ibilbideak eman dion esperientzia, eta esan daiteke oraindik emanaldirik borobila izan zela larunbatekoa.

Emanaldiaren ondoren, bertako Ur-mia elkartearen bilduren taldekideak, afari goxo baten bueltan gorputzak berotzeko. Afalostean ez zen umorerik falta, ez eta ere, musika, bertso eta abestirik.

ABENDUAREN 2AN EMANALDI BERRIA ANDOAINEN

Hurrengo emanaldia, zurrenik azkenekoa izango dena, datorren abenduaren 2an, ostiralarekin gaueko 21:30ean Basteron. Sarrerak salgai: Ernaitza, Delgado, Stop liburudenda eta Urnietako Bikain.

Zanpatuz taldearen irteera bertan behera geratu da

Fronte berri baten sarrera iragarri dago astebururako, eta bost orduko irteera denez, Zanpatuz taldeak larunbaterako iragarri zuen Gorbearako irteera bertan behera uztea erabaki du. Da-

torren urteko udaberriko utzi dute.

Azaroaren 27an BTT irteera antolatuko dute Leitzaran aldeko kanaletara. Hiru orduko, 09:30ean irteera dira San Juan plazatik.



Elkarrizketak, hemerroteka, antzezlanaren garapena...

Eduki gehiago
www.aiurri.eus webgunean
 komunitatea atalean
aiurri.eus/komunitatea/gabontxirrita

Beldurraren etxea



Umezurztegi beldurgarri bihurtu zuten Lekaio.

Halloween ospakizunarekin bat eginez, Gaztelekuak Lekaio umezurztegi bihurtu zuen. Aurtengoan hirugarren aldiz antolatu dute Urnietako Beldur Etxea eta "oso arrakastatsua" izan dela azaldu dute. Adin guztietako ehundik gora gazte gerturatu baitzen Lekaio: "Lekaio Umezurztegi bihurtu eta parte hartzaileen helburua bertan sartu eta galdutako ume bat aurkitu eta ateratzea zen, ho-

rretarako hezitzaile baten labar guntza zutelarik. Barruan, gainera, espero ez zituzten mamuak zituzten zain...", adierazi dute. Guztiak ausartu ez ziren arren, gehiengoak beldur "handia" pasa zutela aitortu zuten. Hezitzaileek balorazio positiboa egin dute, bai egunarena eta baita aurretik egindako lan-prozesuarena. Izan ere, 15-16 urteko 11 neska-mutilen talde batek antolatu du Beldurraren Etxea.

Pausokaren alde



Igande honetan Hernaniko Atsegindegi plazan dute hitzordua Zumba zaleek. El-

kartasunezko saioa izango da, gainera, Pausokaren alde. 10:00etan hasiko dira.

Adimen emozionala, ikastaroa gurasoentzat

Emozio, pentsamendu eta portaeren interakzioak jabetu ahal izateko, hiru hilabetezko ikastaroa antolatu du Salesiar ikastetxeak: "Zuen seme-alabekin izango dituzuen harremanak hobeto izaten lagunduko dizue eta horrekin batera, gurasoentzat hain garrantzitsua den

seme-alaben zoriontasuna lortzen".

Lehen bi hitzorduak azaroaren 14an eta 16an izango dira.

Datorren astean, beraz.

Ikastaroa:

Astelehenero, 15:00-18:00.

Asteazkeneko, 18:00-21:00.

Jardunaldiak Presentacion de Maria ikastetxean

Haurdun egon edota 0-6 urte bitarteko seme-alabak dituztenei begira bi hitzordu antolatu dituzte. Jardunaldian parte hartzeko beharrezkoa izango da ikastetxe-ko webgunean izena ematea. Informazio gehiago: urnieta.presentationdemaria.org

Telefonoa: 943 551 782.

Jardunaldiak:

Azaroak 12, larunbata.

10:00.

Estimulazioa zer den eta zertarako den.

Azaroak 26, larunbata.

10:00.

Etxean hurrekin egin daitezkeen jolas/ariketak.

XOXOKA MOTOR KIROL KLUBA

Motorzaleen festa



Igande goiz osoan zehar motor hotsak entzun zitezkeen Urnietan. Erratzu poligonotik zetorren soinua, bertan ospatu baitzen lehenengo aldiz Xoxoka Motor Club-ak antolatutako Slalom-a. Ikusmin handia piztu zuen, urnietarrez

gain, inguruko herrietatik jende ugari gerturatu baitzen ikus-tera. Behin epaileek probarako prest zeuden autoak ikusita eta beroketak eginda, autoek bata bestearen atzetik ikuskizun ederra eskaini zuten.



MIKEL APAIZA GUNEA

Mikel apaizarekin egoteko eserlekua Sorabillan

Etorkizunean Mikel Goenaga apaizaren izena eramango duen Gunearen irekiera egin zuten Sorabillan, joan den larunbatean. Eki-menaren aldeko talde eragilearen izenean mintzatu zen Karmen

Rodriguez Ranz, eta gunean jarri den eserlekuaren inguruko azalpenak eman zituen: "Aulki hau ez da Mikelena, Mikelekin egoteko baizik".

Euria goian eta behean egiten zuen eguerdi aldera Sorabilla auzoan, baina **Mikel Goenagaren** senide eta lagun frankok ez zioten muzinik egin alde zurretik jarritako hitzorduari. Sorabillako elizako kanpai errepikak egin zuen ekitaldirako deialdia, eta txistularien doinupean, aulkia ipini duten gunera hurbiltzen joan ziren, Erretoretxearen eta elizaren artean dagoen zelai horretara. Auzoko **Dani Herranz** eta **Maidier Tapia** dantzariak tradiziozko agurra dantzatzeari ekin zioten ondoren.

Ana Carrere alkateak hitza hartu zuen: "Udaletxera heldu eta berehala pare bat bilera eduki genituen Mikel Goenagarekin. Nik orduan ezagutu nuen. Behartsuenen, etorkinen edota presoan alde lanean aritzen zen pertsona indartsua iruditu zitzaidan. Aitortu behar dut sinestuna ez naizen arren, Mikelen jokabideak eta jardunak zer pentsatua eman zidala; sinestarazi zidan Elizaren baitan posible dela ofizialtasunaz haratago jokatzea, errealitatera itsatsita eta herritar-rago jokatuz. Bera da horren frogarik argiena, eta baita Sorabillako Erretoretxean egiten den lana ere".

Mintzaldia amaituta, Mikel Apaiza Gunea adierazten duen plaka bistartzea egokitu zitzaion Carrereri. Segidan, Mikel Goenagaren senideak eta lagunak guneako aulkira gerturatu ziren. Euri jasak ez zuen etenik, eta aterpe gisa jarritako haimaren azpian, **Karmen Rodriguez Ranzek** hitz hartu zuen, ekimenaren aldeko taldearen izenean. Aulkia transmititu nahi duen sinbologiaren inguruan zenbait gogoeta egin nahi izan zituen, Mikelen izanarekin lotuz: "Eserleku bat, atsedena hartzeko lekua da, hausnartzera jartzeko, hizketan partxadaz aritzeko lagunekin... Izan ere, Mikelengana joaten ginenean, Sorabillako zein Astigarragako erretore etxetara, sukaldeko mahai handiaren inguruan jartzen ginen. Bakarka, edo taldeka joaten ginen berarengana. Esaterako, gaur bezalako egunetan, azaroaren 5ean betetzen baitzuten urteak. Gogoz joaten ginen harengana, errealitaterik gordinenarekin egunero bizi zen pertsona batengandik informazioa jaso nahi genuelako. Berak, behartsuenen errealitatearen kronika egiten zigun, bai, baina aldi berean, galdera-ikurrak planteatzen zizkigun, ez zirenak batere erosoak.



Senideak eta lagunak gunearen eta aulkia bistaratzearan ekitaldian.

Ez ziren batere errazak izaten berak proposatzen zizkigun bideak".

TRABAZ BETERIKO BIDEEN URRATZAILE

Denboraleak, N1ean trafiko istripuak eta auto ilarek markatutako goiza izan zen larunbatekoa, eta metafora eta umorea erabili zituen Rodriguezek errealitate hori, Mikelen inguruko gogoetak egiten jarraitzeko: "Mikelek zirkulazio etena eta euritea eragin digu gaur, eta horixe zekarren Mikelekin konpromisua hartzeak: bustitzea eta trabaz beteriko bidea egitea. Bere etxetik bustita irteten baitzinen. Andoainen bizi izan zen garai hartan Otieta bilgunean elkartzeko ginen makina bat gizarte eta kultur eragileek Mikel ezagutze-

ko aukera eduki genuen, eta badakigu nola bustiarazten gintuen; horrexegatik, guztiok eskertuta gaude berarekin. Eta zer esanik ez bere laguntza jaso zuten ikastetxe guzti guztiak".

Azkenik, Rodriguezek eserlekuan esertzeko gonbitea luzatu zuten ez bakarrik ekitaldira bertaratu zirenei, baita herritar guztiei ere: "Andoaindarrak maiz etortzen gara Sorabillara paseatzera edo lasaitasun bila. Aurrerantzean badaukagu Mikelekin egoteko txoko bat. Lasai egoteko, atsedena hartzeko, ondokoarekin hizketan aritzeko, kontenplazioan egoteko... Txokoa ez dadila Mikelen txokoa izan, Mikelekin egoteko txokoa baizik".

Hizlarien txandari amaiera emateko,



Ekimenaren sustatzaileetakoak, aurreko larunbateko irekiera ekitaldian.

"Gaur bezalako egun batean, 1958ko azaroaren 5ean jaio zen Mikel. 58 urte beteko zituen. Bere lau anai-arrebak amarekin hementxe gaude. Gaurko eguna hautatu izana opari bat da berarentzat"

Mikel Goenagaren senideak

Mikelen anai batek hartu zuen hitza: "Gaur bezalako egun batean, 1958ko azaroaren 5ean jaio zen Mikel. 58 urte beteko zituen gaur. Bere lau anai-arrebak amarekin hementxe gaude gaur. Gaurko eguna hautatu izana opari bat da berarentzat. Familiaren partetik, mila esker Andoaingo herriari eta zuei, bere lagunei".

Ekitaldiaren ostean, San Martin elizaren atarian bildu zirenek Sorabillako auzotarrek prestatutako salda beroa edan eta mokadua jateko aukera eduki zuten; tertulian, Mikel oroitzen jarraitzeko beste modua izan zen, eurite zarakretik babesturik.

EKINTZAILE PORROKATUAREN OROIMEN AHATZETA

Mikel Goenagaren lagunak osatutako taldea eta Andoaingo Udala izan ziren ekitaldiaren antolatzaileak. Ez baitaude horren erraz ahazteko Goenaga bezalako pertsona bat. Ekintzaile porrokatua izan zen bizi izan zen artean, gizarteko behartsuen alde eta injustizia guztien kontra, beti ere.

58 urte zituela hil zen aurtengo martxoan; Astigarragako apaiza zen orduan, baina aurretik, makina bat urte Andoaingo Sorabilla auzoan egin zituen. Arrasto ahaztezina utzi zuen Andoainen orduan, eta horrexegatik, samin sakona eragin zuen heriotzaren albisteak.

Heriotzaren berri eduki bezain pronto taldea osatu zen Andoainen, bere oroitzapena bizirik mantentzeko asmoz, eta apirilaren 24an, omenaldi ekitaldia antolatu zuen Sorabillan bertan.

Hain zuzen, larunbatean inauguratutako Mikel Apaiza Gunea talde horrek bultzatu duen bigarren ekimena izan da, Andoaingo udal batzuan proposatu eta alderdi politikoei aho batez onartu zutena pasa den iraileko udal batzarraldian.

Ongietorria bosgarren edukiontzari



Postontzia
Ipar Haizea

Egun hauetan Andoainen bosgarren edukiontzia ezartzen ari da. Alderdi guztiek udalbatzarrean onartu zuten hondakin bilketa sistema berri honi ongi etorria ematen diogu eta deialdi bat egiten dugu bere erabilera sustatzeko.

Andoaingo biztanle guztiak sistema hau bere osotasunean hartzera animatzen ditugu, aukera ezin hobea baita hondakin nahasiak zaborteziak ez laguntzeko. Bereizi gabeko zabor hori ezin liteke birziklatu eta Andoainetik gertu proiektatutako erraustegiaren erregai nagusia izango litzateke.

Hondakin nahasiak konponbide zaileko arazoak dira; zaborteziaren metanoaren isurketa dakartzate eta baita fluxu arinen existentzia, lurra eta ibaiak kutsatzen dituztenak. Bestalde zaborra errausten denean, birziklatuak eta berrerabiliak izan zitezkeen baliabideak erretzen dira, ingurumen kaltea sortuz eta energia aurrezpen handia galduz. Zaborra ez da desagertzen errauste prozesuarekin, erretako % 30-a errauts eta zepa toxikoetan bilakatzen dira, zabortezi bereziak behar dituztenak.

Ikerketa desberdinek eta bereziki ikerketa berriak (Instituto de Salud Carlos III de Madrid, 2014) baieztatzen dute erraustegi batetik gertu bizitzea osasunarentzat kaltegarria dela, eta andoaindarroi erraustegi bat

ezarri nahi digute solik 3km-etara. Horretaz gain, hemen nabarmen diren iparraldeko haizeak dioxina eta furano gehienak Andoainera ekarriko lituzkete zuzenki.

Beraz, bakoitzak sortzen ditugun hondakinak bereizteko ohiturak gure osasuna babestuko du, eta hondakin-kudeaketaren konponbidean parte hartuko dugu. Merez du esfortzu txiki bat egiteak arrakasta horiek lortzearen.

Organikoa da arazo gehien sortarazten dituen, beste hondakinekin nahasten denean zaborra ezin baita tratatu.

Herritar guztiak animatzen ditugu bosgarren edukiontzian materia organikoa banatzera. Eta halaber beste hondakin bereizte prozesuan gogotsu jarraituz, gainerako edukiontzia behar den bezela erabiliz, ingurumenarekin errespetuz jokatuz eta guztion osasunarekin arduratsu izanez.

Positiboki baloratzen dugu duela gutxi Udalak hartutako neurri fiskalen albisteak, zeinetan hobariak emango diren bosgarren edukiontzia erabiltzen dutenei (%10), auzokonposta egiten dutenei (%15) eta autokonposta egiten dutenei (%20). Lehenik eta behin, jasotako organikoaren kalitatea ebaluatua izan beharko da neurri horiek hartzeko, inpropio kantitatea %5-a baino gutxiagokoa izan beharko da. Beraz, berebiziko garrantzia izango du bosgarren edukiontzia behar dan bezela erabiltzeak.

Azkenik, andoaindar guztioi familia argazki bat ateratzeko gonbidapena luzatzen dizuegu, herritarrek bosgarren edukiontzia erabiltzera animatzeko eta gaikako bilketan sakontzeko. Argazkia azaroak 12an aterako da eguerdiko 12:00etan udal-txe aurreko eskileratan.

Matrikulazioa zabalik Galardi haur eskolan

2017ko urtarriletik maiatzera bitartean hasteko; 0-1 eta 1-2 urtekoak matrikulatzeko epea zabalik izango da azaroaren 28tik abenduaren 9ra bitarte.

Matrikulazioa:

- Bastero.
- 943 303 540.

- Orduetgia: 10:00- 13:00, 16:30-19:30.

Ate irekiera:

- Haur Eskola ikusteko egunak: azaroak 21 eta 28.
- 16:30-17:30.
- Extremadura kalea 6.
- 943 300 655.

Hamaseigarren urteurreneko ekitaldiak Andoainen

Gazte Lokalaren urteurrena

Andoaingo Gazte Lokalak urteurrena bi ekitaldiren bitartez ospatuko du. Azaroaren 19ra-ko Txuri Urdiñera irteera antolatu dute. Hilaren 17ra arte eman daiteke izena. Azaroaren 20an, berriz, merienda egingo dute Gazte Lokalean bertan.



“Bizitzaren herena” mugimendua, Andoaingo presoaren alde

Axier Oiartzabal presoaren aldeko ekimen sorta

Hasteko eta behin, azalduko al zenigukete zein den Axier Oiartzabal presoaren egoera?

Estatu frantseseko hainbat espetxe ezagutu ondoren, batzuk biziki baldintza gogorrekoak, gaur egun Saint Maurreko espetxean dute Axier, Andoaindik 600 km-tara, beste 5 euskal presoekin batera. 15 urte daramate bere senide eta lagunek asteburuoro bidaia luzeak, garestiak eta nekagarriak egiten bera bisitatu ahal izateko. Tartean dugu bere bi urteko alabatxoa, aita kartzelan besterik ezagutu ez duena, hilabetero ikastola galdu behar duena ostiralez, aitaxo ikusi ahal izateko bidaia egiteko.

Haren bizi baldintzak hobetzeko edota kaleratzearen azkartzean eragiteko ekimena al da?

45 urte beteko ditu azaroan Axierrek, beraz bizitzaren herena giltzapeturik daramala esan genezake. Nahikoa dela uste dugu, eta euskal presorik gabeko Andoain bat irudikatzen hasiak garen honetan, Axier etxean nahiko genuke.

Presoak familia izanda, haren gerturaz lorgarri iruditzen al zaizue?

Familia, presoarenaz gain, beste kondena bat betetzen ari da, eta hori bidegabekeri izugarria da. Legeak dioena erreparatu bakarrik, aspaldian behar lukete euskal presoek Euskal Herrian, etxetik gertu. Erabaki politiko bat da, ez besterik. Beraz lorgarria ez ezik, pre-miazkoa iruditzen zaigu.

Jardueren artean, ikus-entzunezko prestatzen ari zaretela ikus daiteke. Aurrerapen bat emateko moduan al zaudete? Zer da dokumentalean agertu nahi duzuenaz?



Amagoia Mujika eta Ainhoa Elizondo herri ekimeneko solaskideak.

“Axier bisitatu ahal izateko hamabost urte daramate bere senide eta lagunek asteburuoro bidaia luzeak, garestiak eta nekagarriak egiten. Tartean bere bi urteko alaba”

Dokumentala, ahots ezberdinen sentipenen puzzle bat da. Barru-barruko sentipenak, barru-barruan gordeta egon direnak eta barru-barrutik atera direnak, zenbait kasutan malako eta emozioz beteak. Oso hunkigarria izan da bere gurasoen testigantza adibidez, Aita Larramendi ikastolako lagunen hitzek bere haurtzarora garamatzate, Sorabillako bizilagunen kontuek bere gaztaroa aipatzen dute..., eta zinez samurtasunez beteak, bere alaba txikiaren hitzak izango dira... ikustekoa!

Senideak eta lagunak sustatzaileran zabilzate, baina ekimen plurala dela aitortu duzue. Auzolanean aritu gara lanean, ekimen ezberdinak aurrera ateratzeko asmoz. Eta bai, ha-

siera hasieratik saiatu gara pentsakera ezberdineko jendea elkartzeko eta alde horretatik ekimen plural bat aurkeztu.

Abenduan, azaroko ekitaldiak amaituta, gai honekiko zein egoeratan egon nahiko zenukete?

Aurreko galderan erantzun bezala, guk Axier, Tintto, Iñaki eta Ainhoa etxean nahi ditugu. Badakigu aldapa gogorra eta luzea izango dela, baina ekimen hauekin gaia plazara atera nahi dugu, egoera latz honen berri eman Andoaingo herritarrei eta egoera beltz honi kolore pixka bat jarri. Herritarrok emandako bultzadak ekarriko baititu bere emaitzak.

EKIMENAK AZAROAN

Giza-katea

18:00 Goikoplaza-Zumea plaza. Azaroak 19, larunbata.

Mahai-ingurua

Espetxealdi luzeen eraginaz. 19:00 Bastero.

Azaroak 23, asteartea.

Ikus-entzunezkoak

Senide eta lagunen lekukotzak, presoaren urtebetetze egunean.

19:00 Bastero.

Azaroak 29, asteartea.

ELKARRIZKETA

Malen Otxoaren egonaldia Peru aldean

Malen Otxoa andoaindar gazteak bi hilabete igaro ditu Ayacucho hiriko (Peru) auzo txiro batean, hurrei sexologiako ikasketak eskainiz.

Zer dela eta joan ziren Perura?

Malen Otxoa: EHUUn erizaintzako ikasketetan sexua, generoa eta garapena deituriko ikasgaia dugu. Medicus Mundiren bitartez, Perun klaseak emateko bi hilabeteko egonaldia eskaini ziguten eta izena eman nuen. Kurrikuluma bete nuen, motibazio pertsonalak erantsiz. Ezustean, hautatuetakoa bat izan nintzen. Azkenean, bi erizain joan ginen Ayacucho; hiri handia da, eta hirigunetik kanpo dagoen eskola batera bidali gintuzten.

Hemen ikasle eta han irakasle...

M.O.: Bai, egia esanda, egitasmoak beldur pixka bat ematen zigun guri, arrazoi asko zirela medio. Errespetua eragiten zidalako ni ezer irakastera joan beharrak. Bestetik, jakina da Hego Amerikako parte handi batean, generoaren ikuspegitik nahiko kaskarra dela emakumearen egoera. Behin hara joanda, horixe kontrastatu ahal izan genuen. Sexologia aztergai tabua da; horretaz hizketan jartzen bazara jarrera sexistak xaxatzen ari zarela iruditzen zaie. Eta beraz, zenbat eta informazio gehiago eman, orduan eta okerragoa dela. Ez bada aipatzen, ez da existitzen; hori da mentalitatea.

Segurtasun falta izan zen kontrastatu ahal izan genuen hirugarren arrazoia, beldur pixka bat eragiten ziguna. Badakizu, bi emakume gazte, kanpotarrak eta zuriak... Behin, esate baterako, taxi batean sartu, eta gidariak okerreko bidea hartu zuen. Kale estu eta ilun batetik sartu nahi izan gintuen. Ordurako bidea ikasita geneukan, eta geure urduritasunean, atzeko atea ireki eta salto egiteko prest geundela esan genion behin eta berriro. Azkenean, bide zuzena hartu zuen.

Errezeloak alde batera utzi, eta hara joatea erabaki genuen, eta eskerrak animatu ginen! Oso-osoa baliagarria izan zaigu.

Zer irakasten saiatu zinen ikas geletan?

M.O.: Sei eta hamabi urte bitarteko hurrei tailerrak ematea egokitu zitzaidan. Ez nintzen batere eroso sentitu hasieran, "señorita" deitzen baitzidaten, eta batez ere, azal zurikoa izateagatik denetik jakin behar nuela uste zutelako. Sexologia zen gaia, baina azkenean denetik jorratu behar izan nuen: autonomia pertsonala eta autoestima, biolen-



Malen Otxoa andoaindar gaztea.

tziaren prebentzioa... Geografiaz ere aritu behar izan nuen. Izan ere, gertugertuko errealitatea besterik ez dute ezagutzen. Horrenbestez, mapa bat hartu, eta mundua eta bere kontinentiak deskubritzen lagundu nien ikasleei. Izan ere, gutako bakoitza non gauden kokatzen jakin behar dugu, gureaz gain badirela beste lurralde, mundu eta kulturak, bizimoduak... Ideia hori ez baduzu barneratzen, zurean ixten zara, eta beste aukerarik ez dagoela iruditzen zaizu. Hango sistema bera da itxikeria hori sustatzen duena, herritarrek pentsa dezaten Perutik kanpo ez dagoela beste mundurik, beste bizimodurik. Esatera baterako, hango elikagai askok etiketatun Perun eginak direla jartzen dute, nahiz eta ekoizlea multinazional bat izan.



Euskal Herritik bi lagun abiatu ziren Peru aldeko egonaldira, EHUTik.

Sorterrian eta bizimodu arruntean nekez ikasten diren ikasgaiez beteta itzuli da etxera, eta horietako batzuk kontatu dizkio Aiurri astekariari.

Hai entzat normaltasunez bizitzen diren gauza asko auzitan jartzea egokitu zitzaizun beraz.

M.O.: Bai, eta ezintasuna sentitu nuen maiz. Oso oinarritzko esplikazioak eman behar izan nizkielako. Haietako askorentzat normalena da aita ez ezagutzea. Tratu txarren inguruko bideoen bat jarri nien behin biolentzia egoerak detektatzeko asmoz, eta bat baino gehiago berehala hasi zitzaidan esanez aita ama bizkarra belztuta uzten zuela egunero, eta galdetuz ea hori okerreko jokabidea ote zen... Ezezagunengandik ezer susmagarririk ez hartzeko mezua zabaltzen nien, baina ondorengo eguntan etortzen zitzaizkidan esanez ez dakit nortzuk super ahalmenak edukitzeko bitaminak *pintxatu* zizkietela parkean.

Inpotentzia aipatu duzu...

M.O.: Bai, argi dago hemengo mentalitatearekin joanda hango mila egoera jar ditzakezula auzitan, eta jokabide zuzenari buruzko irizpideak ematen saiatu zaitezkeela. Baina gero errealitatearekin egiten duzu topo, aldarrikatzen ari zarena babesteko euskarri legalik ez duzula.

Nolanahi ere, nik atera dudana ondorioa argia da: txirotasuna nagusi den egoeratan, jakina, ezinbestekoak dira politika eta egitura mailako aldaketa handiak. Baina jai dugu horien zain geratzen bagara. Horrexegatik, garrantzia itzela dauka hezkuntza lantzeak, behebeheko mailatik. Gaztetxo baten etorkizun beltzean eragin nahi baduzu, hortik

"Sexologia aztergai tabua da; horretaz hizketan jartzen bazara jarrera sexistak xaxatzen ari zarela iruditzen zaie"

jo behar duzu. Buruan kortozirkuitua eragin behar diozu, gaitasun kritikoa gara dezan bere errealitatea auzitan jartzeko. Hori bi hilabeteetan ezinezkoa da lortzea, gu joan ginen bezala. Luza-roko egitasmoa behar du izan.

Hego Amerikatik datorkigun reggaetoi estiloa kritikatu izan da sarri... Zu musikaria zaren aldetik, gai hori jorratuko zenuen, ezta?

M.O.: Oso gizarteratua dago genero hori, hemen baino gehiago. Izugarriak dira letra batzuek, batzuetan gordinki eta bestetan modu sotilagoan sartzen dizkiguten mezuak, *"Yo no soy nada sin ti"*, *"te voy a dar duro, aunque tú no quieras"* eta antzekoak. Doinu kutsakorren aurkezten dizkigute, eta maiz ez gara konturatzen zer ari garen abesten eta ze motatako ideiak barneratzen...

Bada, lehiaketatxoa antolatu genuen ikasleeekin: doinuak errespetatuz letrak aldatzea proposatu genien. Baina ez dakit zenbaiteraino lortu genuen nahi genuena.

Zer ikasi duzu hango egonalditik?

M.O.: Nahiko ezkor itzuli nintzen etxera, hango egoera penagarrian pentsatuz, pertsonalki apenas egin nuela ekarpenik... Baina egunak aurrera egin ahal, jaso ditudan irakaspenak nigan nagusitzen joan dira. Hasteko, badaukagula zer ikasia ekonomikoki txirotasun diren leku horietako biztanleengandik; materialista hutsak garela eta askoz ere gutxiago edukita ere, zorientsuak izan gaitzkeela. Alde horretatik, mendebaldeko biztanleei ondo etorriko litzaiguke haiekin bizitzea bolada batean, ea geure egoa apaltzen den.

Maila pertsonalagoan, Peruko egonaldia gazteleraz hobeto mintza nadin lagundu dit, eta batez ere, komunikazioaren garrantziaz ohartarazi dit. Alegia, mentalki ondo antolatzen baduzu zer adierazi nahi duzun, gaitasun komunikatiboan ere asko edukiko duzula irabazia.

EUSKARAREN TRANSMISIOA ESQUALDEAN

Euskararen aldeko ekimenak Beterri-Buruntzan

Etxean ikasten dira bizitzako hainbat arau, jokabide eta ohitura, eta etxetik jasotzen da hizkuntza ere. Batzuek euskara izan dute lehen hizkuntza, etxekoa; beste batzuek, berriz, etxetik kanpo ikasi

dute euskara. Etxetik kalera eramane du zenbaitek euskara; kaletik etxera beste hainbatek. Etxeak eta kaleak euskaradunez bete ditugu, baina gure artean gaztelaniaz ari gara maiz.

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da abenduaren 3an, eta Buruntzaldeko herrietan ere ospakizun ugari antolatu izan da egun horren bueltan. Aurten, ordea, ekimen desberdin batek hartu ditu Buruntzaldeko kaleak eta etxeak.

ANDOAINEN EUSKARAREN ALDE INDARRAK BATUZ

Dagoeneko ekimen berezia ospatu duena, berriz, Andoain da. Herrian euskararen ezagutzak gora egin badu ere, erabileran ez da nabari igoera hori, eta horregatik, *AndoaINDARRA euskaraz* eguna antolatu zuten irailaren 24an.

Herri euskalduna dela erakusteko, denen indarrak batu eta herriko kaleak euskararekin bustitzea izan zuten helburu.

LASARTEORIARRAK, IRTEN ARMAIRUTIK!

Ekimen berezia prestatu dute



aurten Lasarte-Oria. Ohiko Euskararen Maratoia, 40 orduz euskaraz aritzekoa, 40 egunetara luzatu dute, *Irtent Armairutik* ekimenarekin.

Maratoia urriaren 22tik 23rako asteburuan egin zuten, eta urriaren 24an hasi eta abenduaren 3ra arte, astez aste ehundaka lasarteoriar ari dira

armairutik atera, eta euskaraz bizitzen. Belarriprest edo Aho-bizi izan, 40 egunean euskara da nagusi, Lasarte-Oria.

EUSKARARI EUTSI ASTEBETEZ, HERNANIN

Hernanin, Eutsi Euskarari ekimena jarri da martxan. Urriaren 15etik azaroaren 26ra bitarteko sei aste horietan, ehundaka dira astebete aukeratu eta euskara hutsez bizitzeko erronkari aurre egiten ari direnak.

Horietako bat da Agustí Serrres Rodríguez, Hernanin bizi den kataluniarra. Bereziki, alabekin euskaraz egin nahi zuelako hasi zen euskara ikasten, eta dagoeneko, kalean ere euskaraz egiten du. Indar proba familiara eramane nahi du orain. Etxeko hizkuntza, osotasunean, euskara izatea da bere buruari jarri dion erronka.

Azken bi aste hauetan parte hartzera animatzen denak badauka aukera, izena emateko: AEKn, Doberan, edo euskara-ariduhernanin@gmail.com helbidean.

ASTIGARRAGAN, '100 DA 100, 200 ORDUZ EUSKARAZ'

Antzeko ekimena jarri dute martxan Astigarragan ere, eta parte hartzera animatu denetako bat da Jorge Rodríguez Gómez. Alabekin euskara hutsean bizitzea lortu duela aitortzen du, eta '100 da 100, 200 orduz euskaraz' ekimenean parte hartuta, kalean ere euskara hutsean bizitzea lortu nahi du orain.

Ekimenari hasiera emateko, TELP tailerra egingo dute egitasmoan izena eman dutenek, euskaraz bizitzeko estrategiak lantzeko, eta argazki erraldoi batekin emango diete hasiera 200 ordui.

EUSKARA ARI DU HERNANIN

PARTE-HARTZAILERENTZAKO AHOKUIAK

Kanpainaren helburua da bakoltzak bere inguruan gero eta euskara gehiago erabiltzea eta saikera horretan gustura sentitzea. Egoera desberdinekin egingo duzu topa eta horiek kudeatzen ikasi beharko duzu. Hemen aholku batzuk:

- 1. ZER EGIN AURREAN DUZUNA EUSKALDUNA DEN ALA EZ EZ DAKIZUNEAN:** Euskaraz egin BETI lehen hitza. Ez dakieela esaten badu, galdetu ea ulertzen duen. Ulertzen badu, segi euskaraz, sinple eta modu errazean. Hori esan, dakiena egiteko euskaraz eta ez dakiena gaztelaniaz adierazteko lasai.
- 2. ZER EGIN AURREAN DUZUNA EZAGUNA ETA EUSKALDUNA BENEAN, BAINA ZUEN ARTEAN GAZTELANIAZ EGITEKO OHITURA DUZUNEAN:** Garbi adierazi zuk euskaraz egingo diozula eta nahi duzula berak ere euskaraz erantzutea.
- 3. ZER EGIN TALDEAN ZAUDENEAN:** Denak ulertzeko gai badira, euskaraz egin beti, eta beraien ere adierazi nahi zenukeela hain ere euskaraz erantzutea. Bakaren batek ulertzen ez badu, tratua egin harekin. Pazientziatz hartzeko eskatu. Belarriak irekitzeko eta ahal duena ulertzen saiatzeko. Berak gaztelaniaz egin dezala, lasai, baina saiatzeko beste taldekideen jarduna ez baldintzatzen.

EUTSI EUSKARAZ!!!

HASIERA · EUSKARA ANDOAINEN · ALBISTEAK · ARGAZKIAK ETA BIDEOAK

andoaINDARRA euskaraz.eus

I. andoaINDARRA euskaraz eguna

Irailak 24 ANDOAIN GOIKOPLAZA

EUSKARA ZERBITZUA · EUSKARAZ BIZI · HAURRAK ETA GAZTEAK · GURASOAK · DIRULAGUNTZAK · KIROLA EUSKARAZ · RAKS

EUSKARAREN TRANSMISIOA ESQUALDEAN

«Erdaraz egiten badidate ere, berdin zait; euskaraz jarraitzen dut»



'EUTSI EUSKARARI'
AGUSTÍ SERRES RODRÍGUEZ

Kataluniatik Euskal Herrira etorri zen Agustí Serres Rodríguez, duela 12 bat urte, eta azken zortziak Hernanin egin ditu. Alaba jaiotzean erabaki zuen euskaraz ikastea. «Bera izan da nire irakaslea!», dio.

Etxekoen laguntza ezinbestekoa izan da Agustírentzat, euskara ikasteko. Orain, bera da etxetik kalera euskara ahoan daramana.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Alaba zaharrena jaio zenean hasi nintzen pentsatzen, hemen geratzea erabakiz gero, euskaraz ikasi behar nuela. Horrela, orain 8 bat urte hasi nintzen ikasten.

Nolakoa izan da ikasketa prozesua?

Hasieran AEKn egin nituen bi urte. Gero, hiruzpalau urtez utzi egin nuen, eta aurrerago, beste urtebetez aritu nintzen. AEKn pila bat ikasi nuen. Oso ondo irakasten dute.

Etxean praktikatzen duzu?

Alabekin, egunero. Bera izan da nire irakaslea! Etxeko laguntzarik gabe ezin duzu ikasi. AEKn bakarrik egiten baduzu euskaraz, eta gero erabiltzen ez baduzu, ezinezkoa da.

Beraz, etxean hizkuntza ohitura berriak hartu dituzue?

Geroz eta gehiago hitz egiten dugu euskaraz. Umeen aurrean, beti. Alaba txikienari, ordea, katalanez ere egiten diot. Katalana, gaztelania eta, batez ere, euskara erabiltzen ditugu. Bikotearekin gaztelaniaz egiten dut. Alaba zaharrenarekin euskaraz egiten dut, garrantzitsua iruditzen zitzaidalako berarekin euskaraz hastea. Baina eskatzen badit, katalanez ere egingo diot.

Etorkizunean hirurok katalanez egitea ere asko gustatuko litzaidake.

Etxeko ohiturak atera al dituzue kalera? Ala zailagoa da kalean euskaraz egitea?

Batzuek berehala aldatzen dute hizkuntza, ikusten dutenean ez dakizula oso ondo. Baina, orokorrean, mantentzen dute, merkatalguneetan, kalean...

Baina erdaraz egiten badidate ere, berdin zait; euskaraz jarraitzen dut nik, gustatzen zaidalako.

Zein da hori lortzeko sekretua?

Niretzako erraza da. Ni lotsagabea naiz! Ez dago sekreturik. Kontua da lotsa etxean uztea, eta gauzak errepikatzea.

Azkenean, nahi gabe ateratzen dira gauzak ondo, edozein hizkuntzarekin bezala. Orain, familia osoak euskarari eusteko erronkan hartuko dugu parte, eskolarekin.

Seguru lortuko dugula!

«Nire lorpen handiena izan da alabekin dena euskaraz egitea»



'200 ORDUZ EUSKARAZ'
JORGE GÓMEZ RODRÍGUEZ

Jorge Gómez Rodríguez familia erdal-dunetik dator. Donostian bizi zela, orain 14 bat urte, hasi zen euskara ikasten, «alabekin euskaraz bizitzeko». Azken 10 urteetan, Astigarragan ere euskaraz bizi daitekeela ikusi du. Familiak lagundu dio Jorge Gómez Rodríguez euskara ikasten, eta orain, etxean lortutako txip aldaketa kalera eramatea du helburu, '100 da 100, 200 orduz euskaraz' ekimenarekin.

Familia erdaldunekoa izanik, nola ikasi duzu euskaraz?

Donostian bizi nintzela, orain 14 bat urte, euskaltegi batean hasi nintzen, zerotik ikasten. Lau urte egin nituen. Gero, tarte batean utzi egin nuen, eta Astigarragara bizitzera etortzean, orain 11 urte edo, AEKn hasi nintzen. Alabak jaio ziren, eta asmoa zen alabekin euskaraz bizitzea. Horrek bulztatu ninduen.

Orduan, etxean euskaraz egiten duzue orain?

Alabekin bai. Nire lorpen handiena izan da, alabekin dena euskaraz egitea. Bikotea ere euskalduna da, eta horrela hasi nintzen ikasten. Berarekin eta bere familiarekin harremanak izateko, euskaraz ikasteko beharra sentitu nuen. Hasieran, bere familiak lagundu zidan.

Etxetik kalera ere, eraman al duzu euskara?

Nire ustez, hemen, Astigarragan, kalean, erraza da euskaraz egitea. Euskaltegian serio hartuta ere, ez da nahikoa. Behar duzuna da, zure burua askatu, txipa aldatu. Horrela erabaki nuen euskaldunekin euskaraz egingo nuela. Nik egiten badiet, haiek ere euskaraz egingo didate, pentsatu nuen. Zaila izan zen salto hori egitea. Oraindik gauza asko gaizki esaten ditut, hanka sartzen dut... Baina horrek ere laguntzen dit, nire burua zuzentzen ikasteko. Gainera, egun, telebista, irratia egunkaria... dauzkagu euskaraz. Benetan ikasi nahi baduzu, erraza da.

Ikasten jarraitzen duzu, hortaz?

Euskara hutsean bizi nahi dut; beraz, oraindik ez dut lortu nahi dudana. Maila polita daukat, baina dena euskaraz egiten jarraitzeko, ikasten jarraitu behar dut. Alabek ere gehiago dakite!

'100 da 100, 200' ekimenean hartuko duzu parte. Zergatik?

Euskaldunekin euskaraz egiten dut. Baina lehengo harremanak, erdaraz sortutakoak, aldatu nahi ditut, eta aurrerantzean, euskaraz egin. Uste dut herrian giro polita sortuko dela, eta umeek ere euskaraz entzuten bagaituzte, zerbait aldatuko da.





FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Hernanik aldarrikatu du

OROIMENA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA

Eguna oso euritsua eta hotza esnatu da. Naturaren kontuak. Eguna moztuz doa, negurantz eta naturak, euria behar-rean, gustura hartu ditu euri zaparradak. Hernaniko hilerria mendiz inguratuturik, guztien gainetik Adarra, duela lau-urogei urte, kolpe militarren ondorioz fusilatu eta desagertuak omentzeko prest dago. Jendea karpura hurbilduz doa. Oroimen sentimenduak nabari eta sentitzen dira. Familiartekoen artean bada pertsona heldurik, normala lau-urogei urte iragan baitira. Eta, nola ez, aurpegian nabaritzen zaie barne sentimenduz gainezka dutela. Euria gogotik ari du. Isiltasuna da nagusi, eta sentimenduak dira protagonista.

Ohiko ongi etorriak egin ondoren, agintariak dute hitza. Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen buru Mari-bel Vaquero izan da lehena. Oroimena, justizia eta erreparazioa aipatu ditu, oroimenik ez duen herriak ezin baitu luza-ro iraun. Eta, noski, Hernaniko hilerrian emandako fusilaketak gogorarazi ditu, oraindik bizirik dauden familiartekoei elkartasuna adieraziz. Oroimenak, justiziak eta erreparazioak, bestalde, bermea izan behar du horrelakorik berriro gerta ez dadin. Ildo beretik, eta jarraian, Hernaniko alkateak idatzi interesgarria irakurri zuen gertatutakoaren berri eman eta testuinguru egokian kokatuz. Hernaniko hilerria Donostiako Ondarreta presondegitik hainbat eta hainbat abertzale eta gudari eraman zituzten fusilatzerara. Niri bihotza ukitu zidana, Aris-tegi familiako seme batek irakurri zuena izan zen. Negar malko ugari isurara-zi zituena, bide batez. Laurogei urte pasa dira, eta aita topa ezinik. Ama hiru semerekin geratu omen zen; txikiak hiru hilabete zituelarik. Adibide gogorra benetan! Halere, sendo eta irmo ikusi nuen gizona. Ekitaldiak musika, poesia eta bertsoak ere izan zituen, sentimendu nobleak sorrarazteko egokiak.

ETA JUSTIZIA?

Oroimenak, ordea, justizia eta erreparazioa ere eskatzen ditu. Izan ere, niri horrelako ekitaldietan parte hartzen

dudanean beti zerbait falta denaren halako sentsazioa sortzen zait: Alegia, bizi izandako injustizia, tortura, kartzela eta fusilaketek nolabaiteko justizia eskatzen dutela. Badakigu, jakin, Argentinako kereila sortu zela hemengo gobernuak eta erakundeek ez zutelako onartzen. Gerra denboran eta ondorenean jasandako errepresioa salatzeraz Argentinara joan ginen, kereila hasi zutenak 36koak baitziren. Argentinako kereilak salaketa asko jaso ditu, baina, gaurdaino, nahiz eta Servini epailea bera Euskal Herrira etorria den, ez du ondorio baikorrik izan. Zenbait torturazailerik diru dira, hala nola, Martin Villa, Billy el Niño, Muñecas, etab.

Horrez gain, Udalak ere —ez denak— kereilatuta dira hiri herrian gertatutakoak salatzen. Halaber, zenbait epailek ere aitorenak jaso dituzte Servini beraren aginduz. Baina, duela gutxi, Espainiako Ministro Justiziak epaileei gela-razi die horrelako aitorenak jaso ez deza-ten. Oraingo Gobernua kontutan hartuta, ez da ikusten argibiderik. Justizi ministroa lehengo berbera da.

Baina tira, aurrera egin behar da eta Hernani eta beste zenbait udalerrri bado-az urratsak ematen, ez soilik oroime- nean, justizian ere bai.

Duela gutxi ospatu da Iruñean zen- bait udal ordezkarien bilera gaia azter- tu eta urrats bateratuak eman ahal izate- ko. Iruñeko Udalez aparte, Gasteiz- koak ere egin du bide beretsua. Hernanikoak, oroimen ekitaldi bikain horre- tatik aparte, ondo egingo luke hemen- go epaitegian eta Argentinakoan krimen horiek denak salatuko balitu. Justizia merezi baitute.

HERNANIKOAK BESTE UDALERRIENTZAT EREDU

Urnietarra izanik, gustatuko litzaidake horrelako oroimen ekitaldi bat antola- tzea. Oroigarri bat eraiki urnietarrok gerra denboran fusilatutakoak ezagutu ditza- gun. Frankismo garaian tortura eta kar- tzela jasan zutenen izenak erantsiz. Urnie- tako herriak eskertuko luke. Lan bikai- na litzateke! Hernanin egindakoa heda- tuko al da inguruko udalerrietara? Zer- gatik ez?

HITZ-GEZIDUNAK



Kimikan aditu	Japoniarren jantzi	Kokotsaren azpi	Ehun bider hamar	Bolondresa	Oso, txit, erabat
Hala bedi	Pagolako	Herriaren alternatiba	Herriaren alternatiba	Nitrogenoa	Nitrogenoa
Hitz neurtuz-ko kontakizun	Egongo litzateke	Ezagutzen dute	Musu	Edari al- koholduna	Belar mota
* DEITURA	Egokitzen zaio				
Marfil	Idorte, lehorte	Haur hizke- ran, haur	Europar Batasuna	(Zah.) Zakur	Behorra arreske
Garuntxo			Ala	Bokala	

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere.

9	3		7			8		6
			1					2
2					6			
		5		7			4	1
			6		3			
3	9			1		7		
			4					3
4					9			
6		8			7		9	5

5 x 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

1	2	3	4	5
1				
2				
3				
4				
5				

1. Tente, zut.
2. Izana. 3. Etorkizuna asmatzeko karta joko.
4. Norabait. 5. Katu ar

HIEROGLIFIKOA



Zer egiten ari dira?

ERANTZUNAK

6	1	8	2	3	7	4	9	5
4	5	3	8	6	9	1	2	7
8	7	9	4	6	1	5	3	2
3	9	2	5	1	4	7	6	8
9	1	4	7	8	3	2	5	6
8	6	5	9	6	7	2	3	4
1	4	7	6	8	3	2	5	9
2	8	1	3	9	6	5	7	4
5	7	6	1	4	8	9	3	2
6	3	4	7	2	5	8	1	9

K	A	T	A	R
I	N	O	R	A
T	A	R	O	T
U	K	A	N	A
Z	U	T	I	K

B	O	N	E	L	T	U	N	T	A	O	A		
K	O	N	E	L	T	U	N	T	A	O	A		
K	M	I	K	E	L	T	U	N	T	A	O	A	
K	I	M	I	L	O	T	A	S	P	O	T	A	
K	O	I	L	O	T	A	S	P	O	T	A	O	A
P	A	D	A	R	R	E	T	A	O	R	I	O	A
H	A	L	E	G	A	R	R	E	T	A	O	A	
B	A	L	E	G	A	R	R	E	T	A	O	A	
D	A	G	O	K	I	O	N	I	N	I	O	A	
S	I	K	A	T	E	B	E	L	L	O	A		

Paela erraldoi bat



Gipuzkoako Foru Aldundia Euskara Zuzendaritza



KIROL ALBISTEAK

Erregional Preferente mailako taldeak Ubitarten jokatu du

Euskaldunak lidergoari eutsi nahi dio

Ligako lehen zortzi jardunaldiak igaro ondoren, **Euskalduna** taldeak indartsu eusten dio lehen postuari. Talde sendoa dela erakusten ari da: 20 puntu, 6 garaipen, 2 berdinketa eta 4 gol soilik jaso ditu. Ez du, beraz, oraindik partida bakar bat ere galdu. Egoera beretsuan dago **Añorga** taldea, andoaindarraren atzetik bi puntura.

Eta egutegia ikusita, asteburu honetan bi taldeak elkarren aurka arituko dira Donostiako auzoan. Jardunaldiko eta liga hasierako partida garrantzitsuena izango da, beraz.

Andoaingo taldeak lidergozari eutsi nahi dio. Garaipena lortuz gero, urrats sendoa emango luke.

Liga berean dago Urnieta, sailkapenaren erdialdean, maila txukuna emanez.



Euskaldunako lehen taldea.

© Javier Zatarain

8. JARDUNALDIA. Emaizak:

Euskalduna 2-2 Sanpedrotarra
Mundarro 0-2 Urnieta

9. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Añorga-Euskalduna
Larunbata, 12. 18:00.
Urnieta-Allerru
Larunbata, 12. 18:00.

SAILKAPENA. 8. jardunaldia:

1. Euskalduna	20
2. Añorga	18
3. Allerru	16
4. Trintxerpe	14
5. Santo Tomas Lizeoa	13
6. Orioko	12
7. Urnieta	11

Munduko txapelketara

Papua Guinean 20 urte azpiko mundu txapelketan parte hartuko du Nahikari Garcia urnietarrak, Espainiako selekzioarekin. Datorren igandean Canadaren aurka debuta egingo dute. Hainbat ediziotan sailkatu ezinik ibili eta gero, espainiarrak maila ona emateko asmoarekin doaz.



Nahikari Garcia ezkerretik lehena, igande arratsaldean aireportuan.

Senior mailako eskubaloia

Andoaingo eta Urnietako nesken eta mutilen taldeak sailkapenaren erdialdean doaz, senior mailako bi ligatan.

Urnietako mutilena nabarmentzeko da, hirugarren garaipena jarraian lortu baitzuten. Dagoeneko Eibar hirugarren sailkatuaren puntu kopuru bera du. Taldea kementsu dago, igandean goizeko 11:30etan ligako lider Ordiziari bisita egiteko.

SENIOR MUTILAK, 5. jardunaldia:

Ereintza 33-32 Leizaran
Urnieta 35-29 Saieko
6. jardunaldia, asteburuan:
Ordizia-Urnieta. Igandea, 11:30.
Leizaran-Egia. Larunbata, 17:30.

SENIOR NESKAK, 5. jardunaldia:

Leizaran 23-11 Ibaizabal
Urnieta 16-26 Berango
6. jardunaldia, asteburuan:
Errotaberri-Leizaran. Igandea, 11:00.
Eibar-Urnieta. Larunbata, 17:00.

Sailkapena:

1. Ordizia	10
2. Ereintza	8
4. Egia	6
6. Urnieta	6
7. Leizaran	5

Sailkapena:

1. Berango	10
2. Errotaberri	10
3. Egia	7
5. Leizaran	6
8. Urnieta	4

Iker Hernandezen debuta



Hernandez Real Unionen Realak utzita jokatzeko ari den Tena atezainarekin.

Urnietako jokalaria Athleticeko bigarren taldearekin debuta egin zuen aurreko asteburuan, Irunen Real Unionen aurka jokatuako partidaren. Irailean lepaustuaren lesioa izan eta gero, lehen minutuak jokatzeko aukera izan zuen. Bizkaitarrek 3-1 galdu zuten. Azken 20 minutuetan Cuco Ziganda entrenatzaileak jokatzeko aukera eman zion urnietarrari.

Olatz Odriozola, bikain



Olatz Odriozola Legazpiko proban.

Ziklo kros denboraldi berrian maila ona ematen da. Abadiñon urrian garaile izan eta gero, Legazpiko proban ere nagusi izan zen. Urriaren 31n, gainera, Europako txapelketan parte hartu zuen, nazioartean ere aurrealdean ibil daitekeela erakutsiz. Pont-Châteauko lasterketan urnietarra hamalagurren sailkatu zen.

Urnietako pilotariak



Iban Barrutia eta Xabier Pavón.

URNIETA 22-4 ZUMAIA

Jubenil maila, binakakoa.

Alain-Aitor bikotearen garaipen argia, finalaurrekoaren atarian jarri dituen. Hori bai, horretarako asteburu honetako partida irabazi beharko dute Gazteleku taldearen aurka. Andoainen jokatu da, eta irabazten duena finalaurrekora sailkatuko da.

URNIETA 25-21 TOLOSA

Gomazko paleta, binakakoa

Ibanek eta Pavonek jokatuako partida ona. Jonek eta Xabierrek beste partidaren ezin izan zuten deus egin.

BESTE EMAITZAK

URNIETA 31-40 GAZTELEKU

Paleta motza, senior 2. maila.

URNIETA 40- TXOST 30

Paleta motza, senior 3. maila.

Ganbara saski taldea

Senior maila:

SenM 76-59 Alde Zaharra
JubM 44-42 Oiartzun
BKL 57-38 KadM

Allurralde kiroldegian:

Ganbara-Hernani
Kadete maila
Larunbata, 12. 09:00.

Emakumezkoen Erregionala

FUTBOLA. 7. jardunaldia

Urnieta 3-1 Santo Tomas Lizeoa
8. jardunaldia, asteburuan:
Intxaurdi-Urnieta
Igandea, 13. 16:45.

Sailkapena:

1. Touring	16
2. Intxaurdi	16
3. Urnieta	16
4. Ordizia	13

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea: Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04. ISSN: 1698-4870. Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain**
- **“La chica del tren”:** Azaroak 12: 19:30, 22:00. Azaroak 13: 19:30. Azaroak 14: 19:30, 22:00
 - **“Peter y el dragon”,** haurrentzat: Azaroak 12, 13. 17:00.
 - Datorren asteburuan: **“100 metros”.**

Sariketa

- Andoain**
- **Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa,** sari banaketa ekitaldia. 18:30. Ekitaldi aretoa. Azaroak 10, osteguna.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- **“Esku azpi begi”** Estanis Comella, Maite Mugerza eta Damaris Pan artista gazteen eskutik. Irekiera ekitaldia: 19:00. Erakusketa gela. Azaroak 11, ostirala. Urte amaiera arte.

Matrikula

- Andoain**
- **Galardi** haurreskolan izena emateko aukera zabalik. Informazio gehiago 4. orrialdean. Ate irekierak: Azaroak 21, 28.

Odol emaleak

- Urnietan**
- Anbulatorio zaharrea. 18:30-19:30. Azaroak 11, ostirala.

Andoain

- Anbulatorioa. 18:30-20:30. Abenduak 13, asteartea.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Pajares. Urnietan: Gomez, Hernani.
 - Gauez: **Urrutia,** Hernani. Azaroak 12, 13.

Santa Zezilia

- Andoain**
- **Senperena** musikaria. 20:00. Ekitaldi aretoa. Azaroak 19, larunbata.
 - **Kontzertua.** Txaranga, abesbatza, txistulari eta akordeoi joleak. 20:15. Santa Krutz ermitan. Azaroak 19, larunbata.
 - Gaueko entziklopedia koxkorra. 17:00. Auditorioa. Azaroak 20, igandea.
 - **“Begirada bi”, Iñaki Salvadorekin.** 20:00. Doan. Azaroak 25, ostirala.
 - **Mirari Irurzun eta Susana Cencilloren** ikuskizuna. 20:00. 8 euro. Azaroak 26, larunbata.

Antzerkia

- Andoain, Bastero**
- **“Solitudes”** Kulunkaren eskutik, hitzik gabeko maskaradun antzerkia. 21:30. Auditorioa. 12 euro. Azaroak 18, ostirala.
 - **“Gabon Txirrita”** ikuskizuna. Sarrerak salgai: Ernaitza, Delgado, Stop eta Urnietako Bikain kafetegia. 21:30. Auditorioa. Abenduak 2, ostirala.

Urnietan

- Ipuin kontaketa: **“Nire etxea zure etxea da”,** Maite Franko. 17:30. Ludoteka. Azaroak 10, osteguna.
- **“Lu eta Le”** antzezlan, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete protagonista direla. Bernardo Atxagak sortua Juan Carlos Perezen musikarekin. 19:30. Sarobe. 4 euro. Azaroak 16, asteazkena.
- **“Arizona”,** Max sarietan saritutakoa. Gaztelaniaz. 19:30. Sarobe. Azaroak 20, igandea.

Musika

- Andoain, Gaztetxea**
- **Ziribulio Sound, Bad Sound System** Azaroak 12, larunbata.
 - **Jotakie, Trini Fox** Azaroak 19, larunbata.
 - **Estricalla, Inoreneroni** Azaroak 26, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Izaro Etxeberria Iruretagoiena abuztuaren 26an jaio zen. Ongi etorria, etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Osaba Joxe Marik eta Aimarrek azaroaren 6an bete dituzte urteak. Besarkada bana.

ANDOAIN

ZORIONAK



Uxue Ibañez Donosok 21 urte azaroaren 10ean. Muxu handia!

ANDOAIN

ZORIONAK MARI



50. URTEURRENA



Azaroaren 12an 50 urte beteko dira, **Fermin eta Roxa.** Muxu bero bat guztion partez! Txertota eta Oroitzako familia.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK

diseinua@aiurri.eus
Whatsappa: **619 163 537**

TOKIKOM JARDUNALDIAK 2016
KOMUNIKAZIO LOKALA ESPARRU GLOBALEAN

Tokiko hedabideen erronkak aztergai

Bost urte beteko dira laster Aiurrik, beste hogeitahedabiderekin batera TOKIKOM toki komunikabideen bateragunea, sortu zuela, komunikabide txikion panorama sendotzeko asmoz. Gainera, 25 urte ere badira, Arrasaten toki komunikabideon etorkizuna marrazteko ARKO Jardunaldiak egin zirela.

Bi urteurren horiek ospatzeko, TOKIKOM Jardunaldiak antolatu dituzte toki komunikabideek. Arrasaten elkartuko dira datorren astelehenean; edukietan, marketinean zein teknologian dauden erronkei buruz jardungo dute, komunikazioaren munduko punta-puntako profesional eta enpresen eskutik. Gainera, tokian tokiko ko-

munikabideek euskararen transmisio katean betetzen duten papera ere aztertuko dute, eta, lehen aldiz, TOKIKOM Sariak ere banatuko dituzte, komunikabide txikiotan urtean egindako portadarik, edukirik eta ikus-entzunezko onenak sarituz. Toki komunikabideotan lan handia egiten den arren, sarritan tokiko publikoak baino ez du ikusten, eta sari hauen helburua egindako lan bikain horiek publiko zabalari ezagutaraztea da.

Jardunaldiok datorren astelehenean izango dira, azaroaren 14an, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean.

Informazio gehiago eta izen-ematea: tokikom.eus/jardunaldiak



Noiz: **Abenduaren 2an, ostiralarekin.**

Non: **Andoingo BASTERO Kulturgunean.**

Ordua: **21:30**

Sarrera: **12€**

Sarrerak salgai. Andoain: Ernaitza, Delgado eta Stop. Urnietan: Bikain (plaza).

